

Ignacio Zuloaga Institutua



Batxilergoan espezialduak

Artistikoa (A eta D ereduak)

Giza eta Gizarte zientziak (D)

Zientifiko/ teknikoak (D)



ELKARTRUKAK

Europako ikastetxeekin
1.mailan Ingalaterrara
2.mailan Alemaniara



Ikastetxe erabat euskalduna
Ikasle eta irakasleak bat eginda
euskera zabaltzeko hainbat ekimen antolatzeko

D ereduan 27 URTE



non dago aurrerapena?
euskeraz bizi dena?
aukerarik onena?
non eman izena?

Ignacio Zuloaga institutuan
hor daukazu dena!



- Entzutekuak: Aitzol Ostogain, Beti Presteko koordinatzailea
- Zer berri: Asfaltoa, aparkalekuak eta argiztapena, herritarren kezka

soraluzeko
hamabostekaria **175.** alea
2008ko apirilaren 11an

pil-pilean



**Argazki zaharrak
kaxetatik internetera**

JUANMA BERRUETA, argazkilaria

DBH amaitu ondoren

Heziketa Zikloa

Erdi-Maila A/D ereduak

2 urtez

3 hilabeteko lan praktikak.

Arloak:

- Mekanizazioa
- Makineria eta linea eroanbideen instalazioa eta mantenimendu elektromekanikoa

Sarbide froga eginez gero Goi-Mailara pasa daiteke

Titulua: Teknikaria

Batxilergoa ikasi ondoren

Heziketa Zikloa

Goi-Maila A/D ereduak

2 urtez + 3 urtez = eman 5ekoa!

3 hilabeteko lan praktikak.

Arloak:

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa(*)
- Industri ekipoen mantenimendua(*)

3 urtez

3 urtetako lan esperientzia

- BERRIA: **IKASI ETA LAN** (*) arloetan

Titulua: Goi-mailako Teknikaria
POI metodologia (PBL)
Irakaskuntza Eleanitza

Goi-Mailako Zikloen ondoren

Ingeniaritza Eskola

ingeniaritza
imh

3 urtetako lan esperientzia.

Ezaugarriak:

- Lan esperientzia lortu ikasten ari zarela
- Ikasketak ordaindu irabazitakoarekin
- Boloniako itunean indarrean dagoen titulu europar ofiziala
- Atzerrian lan-egonaldia

Titulua: Ingeniaria
Txandakako Metodologia
Irakaskuntza Eleanitza



Ate irekiak:

Apirilak 19, larunbata - goizeko 11:00etan

IMH - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoa. 943 74 41 32 - imh@imh.es - www.imh.es



MAKINA BEREZIAK
LERRU AUTOMATIKOAK
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA



SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.
Mendiola industrialdea, 14-5 · Tel. 943 75 18 91 · SORALUZE

Ivy
Dora
KAPUTEN
KANTA

Antzerkiola Imaginarioa

"Kaputen kanta"

Apirilak 18
22:00etan
Liburutegiko atarian

Antolatzaileak:

Babeslea:

SORALUZeko UDALA

LARRAIN DANTZA

Larrain dantza ikastaroa
Erronomia egunean dantzatzeko (ekainak 7)

Egunak: Apirileko eta maiatzeko barixakuetan
Ordua: iluntzeko 7etatik 8terdietara
Lekua: Goiko eskolan

Antolatzaileak:

SORALUZeko EUSKAL JAIXAK

**DOMENTX UZIN****JON BASAURI**

“HOMO PLACENTINUS”AK OPORRETAN

Kaixo JonBa, Ondo ibili gaittuk Aste Santutan, ala? Bajakixat Pantikosa inguruan ibili hazela beste bi “Homo Placentinus”ekin batera, txikiteo aragoitarrak eta goi mendiko pasiarak emoten dabezen plazerrak gozaten. Ze egualdi euki dozue ba? Tumbing modalitate gogorrenak egin ez baidittuzue...

Nik Portugal berriz bisitatzia nahi neban; egun batzuk lasai egon eta faduez eta arduaz gozatu. Galiziako lagun Mariari proposatu ostian, Oporto aldera juatia pentsatu genduan, Rio Douro (urrezko ibaixa) itsasoratzen dan Hiri-herrira.

Ingelesen ardozaletasuna medio, Frantziarekin gerran zerela eta, Oportora juan ziran hango arduak erostera. Baina bidian ozpindu! Orduan Aguardente piskat botatzia pentsatu zeben, luzatzeko, eta hola sortu zan piraten ardo goxo hori. Oportoko Ribeirara jeisten zaranian, ibai zabalari bestaldian ageri dira bodega ugari, asko izen ingelesekin, noski. Eta bidian, kale estu eta aldapatsuetan ikusten dira itxura abandonatua dauken etxe mordua, garai elegantien islada.

Eta azkenian euki genduan Fado Vadio (“canalla”) entzuteko parada, periferiako taberna zahar baten, “you tube”ri esker. Pasada bat izan zan, zapatu bazkalosteko saio herrikoia, inprobisatua, sentimenduz eta harrotasunez abestutakua, barruraino sartu jakuna. Urte askuan iraun deixela herri sufritu horren ari-mako doinuak. 🌀

“

Oporton faduez eta arduaz gozatu juat

Domentx Uzin

Auñamendietan etxuagu demandarik erabili Homo Pyrenaicus gizakiarekin

Jon Basauri

”

Aupa Do, Bidaia polita heuria: lasaitasuna, paseoak urrezko ibaiaren ertzetatik, Oportoko arduak eta fadoak. Inbidixia hartzen juat sentimentuz eta plazerez betetako txango horregatik. Ia hurrenguan alkarrekin goiazten eta gurekin Ventos de Saudadeko bi poxpolin panpoxak be etortzen diran. Eukiko dogu han zer ikasi.

Hik aurreratu legetxe, Aragoiko Auñamendietan ibili nok ni, beste bi Homo Placentinus Urbanitarekin batera. Gure adaptazioa lurralde berrietan perfektua izan dok; etxuagu iñungo demandarik erabili Homo Pyrenaicus gizakiarekin, eta gehixago esango dostat: iñungo nekerik gabe egin ditugu gure, giza espezie arrotzaren “fiesta eta siesta” ohitura zaharrak. Baiña dana esan biharra dagok, bai, eta

aitortzen juat mendixan be ibili garala. Egun baten 2000 eta pikuko tontor batera heldu giñan, oxigenorik barik. Pasiada ariñagoak bere egin jittuagu, mendikatearen indar eta edertasunaz liluratuta. Hala eta be edarra izan dok edurrak zurututako paisaia haretatik mela-mela zeguan gure habitatara atzera etortzia. Erne dakazik begixak, Domentx? Ikusten dittuk gure mendi, baso eta zelai bazterrak, kiwi heldua baiño berdeago? Udaberria heldu dok adiskidia, eta Piztia hasia da esnatzen. Ai, hau plazera! Goseak nago. 🌀

Goguan hartzeko**Adiskidea eta ardoa zenbat eta zaharrago hobe**

Esaera zaharra



GUTUNAK

ZUZENKETA

Aurreko alean ez genuen EAJ-PNV alderdiaren Hauteskunde Orokorretako baloraziorik argitara eman. Barkamena eskatzen diogu alderdiari.

EAJ-PNVren balorazioa

Lehenik eta behin argi ikusi da alderdi politiko guztiek 2004ko Hauteskunde orokorrekin alderatuz, boto kopurua galdu dutela udalerrian, PSE-EEak salbu, Soraluze lehenengo indar politikoa izan delarik. Honen arrazoa uste dugu PSOE eta PP ren artean eman den bipolarizazioaren ondorio dela, baita Arrasaten gertaturiko erailketak ere eragina izan duela emaitzetan. Bestalde EAJ /PNV bigarren indar bezala geratu da udale-

rrian. Arrazoiak: nahiz eta alderdiak proiektu politikoa eduki, ikusi da ez garela gai izan ilusio eta gogo horiek herritarrengan islada izan dezaten. Guzti hau horrela izanik, hurrengo hauteskunderi begira gure lan, gogo eta herri honengan dugun ilusioa herritarrei helarazten saiatuko gara emaitza kaskar hauei buelta emateko. Amaitzeko eskerrak eman nahi dizkiegu guregan konfidantza izan duten Soraluzetar guztiei.

EGONALDIAK FAMILIA EUSKALDUNETAN 2008



Euskara ikasi edo hobetu nahian, nahiz bertako euskalkia ezagutzeko asmotan dabilen pertsonak familia euskaldun batean hilabete bat edo bi pasatzeko aukera izango du (uztailean, abuztuan edo irailean).

Informazioa:

- Familientzat: 943 47 44 47 (Olga)
- Ikasleentzat: 94 416 24 72 (Oihane)
- www.egonaldiak.net

IDATZI ZUK ERE!

Lehenengo orrialdeko "Ataixa" atalean edo hirugarreneko "Bittartetik" atalean zure iritzia agertu nahi baduzu, jarri harremanetan gurekin.

pilpilean@euskalnet.net
edo 605 75 25 33 (Arianne)

PIL-PILEAN

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04
e-maila: pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Enara Agirre, Jon Basauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop.
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 1.920 ale **I.Z.K.a:** G20696563
Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldirikariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZEKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



bittartetik



Mikel Leunda
Kontraesanak

Iritsi da matrikulazio garaia. Bi urteko neska-mutikoez datorren ikasturtean hasiko dute beren ikasle bizimodua. Motxilatxo bizkarrean hartuta, amantal koloredunak soinean, eskailere-tan gora ikusiko ditugu irailean. Niri ere iritsi zait semeak matrikulatzeko garaia. Bertako gurasoek ez bezala, ordea, semeak non matrikulatu erabaki behar izan dut nik, ikastetxe bat baino gehiago baitago ni bizi naizen herrian. Eskola Publikoaren eta Ikastolaren artean egin behar izan dut hautua. Erraz egin dut, egia esan, baina egindako aukerak zer pentsatua eman dit. Izan ere, geure burua ezkerrekotzat eta publikoaren defendatzailetzat daukagunontzat, kontraesana dirudi Eskola Publikora joateko aukera izanik seme-alabak sare pribatu edo kontzertatuan matrikulatzea. Sasoi batean euskara erabiltzen genuen egindako aukeraren arrazoitzat. Baina orduko hartan arrazoi zena aitzakia bihurtu zaigu azkenaldian, toki askotan, euskara hutsean diharduelako eskola publikoak. Nago sentimentu kontua ez ote den aukeraketaren arrazoi nagusia, bihotza erabili dudala burua beharrean.

((ENTZUTEKUAK))

Aitzol Ostogain, Beti Prest aisialdi taldeko koordinatzailea

Noiz hasi zarete Beti Prest aisialdi taldiarekin?

Urriaren bukaera aldiari hasi ginan. Jose Gilek komentatu zotan ondo egongo zala berriro hastia, eta nik be ikusten neban premiñia bazeguala herrixan, gaztiak ez zekelako nora juaunik. Sendotzako taldietan komentatu neban eta animatu ziran begirale lanetan jarduteko. Seik dihardue.

Zenbat denboran egon da geldia?

2002xa izan zan azkenengo urtia. Bost urtian geldia egon da. Beti Prest taldeko izenakin Erregeetako Kabalgatia antolatzen zeben eta horrekin mantendu da taldea. Orain be talde bi moduan funtzionatzen dogu: kabalgatako taldea eta aisialdi taldea.

Ze adinetako umiei zuzenduta dago?

Aurten 11 eta 12 urte bittartekuak daukaguz, hogeita hamabost ume. Aurten harrera oso ona eduki dogula ikusitta, datorren urtian hamaika urtetik beheragokuekin hastia pentsatu dogu.

Ze ekintza egitten diharduzue?

Joku dinamikien bidez egitten dogu dana. Irteerak be egin doguz. Abenduan PINera jua ginan eta orain dala gutxi Donostiako izotz pistara. Elgoibarko aisialdi taldea eta hemengua,



eliz mailan, batera koordinatuta dare. Orduan, danok batera egin dittugu irteerak.

Apaizetxean duten lokalean batzen dira gaztetxoak eta begiraleak.

Noiz izaten dira ekintzak?

Hamabost egunero batzen gara zapatu arratsaldetan, lauretatik zazpiretara. Normalian kanpora urtetzen dogu, frontoira, Osintxura, San Andresera...

Kristautasuna zein modutan jorratzen dozue?

Ekimen batzuetan lantzen doguz balore kristau batzuk. Hilan 19xan Loiolara juango gara, Katedesiko umien topagune batera. Hala eta be, herrixan daguan aisialdi hutsunia betetzeko helburua be badauka.

Ze moduz moldatzen zara gaztetxuekin?

Ikaragarri gozatzen dot! Oso gustora ibiltzen naiz. Beti egoten da baina gaztetxoren bat aguantatzeko zailtsua dana, baina gainontzian ondo. ☺

Joku dinamikak eta irteerak egitten doguz



**JATETXEA
TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

**HNOS. BENITO
ANAIAK**



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. y F. 943 75 20 43
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Juan Antonio Garitano, Itxaropenako lehendakari



Zuzendaritza berria lehenengo batzarrean.

Isabelino Regleroren lekua Juan Antonio Garitanok hartu du. Zuzendaritza Batzordean beste zazpi lagunek jardungo dute lanean Garitanorekin batera, lau emakume eta lau gizonetzko denetara: Luis Sousa (lehendakariordea), Marisa Arizaga (idazkaria), Ezoz Basauri (diruzaina), Joaquina Garcia (bokala), Porfidia Casas (bokala), Manolo Etxabe (bokala) eta Joaquin Nabarlaiz (bokala).

Teknologia berriak erabiltzen ikasten

Ordenagailuak eta mugikorrek zela erabiltzen diren ikasteko hainbat ikastaro antolatu ditu Jubilatutako Etxeak, Udalaren laguntzaz. Ordenagailuena KZ-gunean egingo da hilaren 21etik 25era, eta mugikorrena datorren martitzenean hasiko da. ☺



Margarita Larrañaga zendu da

104 urterekin hil da Margarita Larrañaga, urte batzuetan soraluzetar zaharrena izandakoa. 1903.urtean jaioa, herriko kooperatiban lan egin zuen berrogei urte baino gehiagoan. Soraluzen bizi izan zen beti. Azken urteak Zaharren Egoitzan eman zituen.

Auto bat ibaira eta beste bik talka

Hilaren 3an auto bat bidetik irten eta ibaira jausi zen Indubrik parean. Gidariak bere kabuz irtetea lortu zuen eta suhiltzaileek jaso zuten errepideraino. Ertzaintza trafikoa bideratzen ari zela, beste bi autok elkar jo zuten. Zauritu guztiak ospitalera eraman zituen ambulantiak.

Eneritz Iraeta saritu du IMHK

Elgoibarko Makina Erramintaren Institutuak aipamen berezia izeneko saria eman dio Eneritz Iraeta soraluzetar gazteari, Proiektu Mekanikoen Garapeneko ikasketetan lortutako emaitza onengatik. 1.500 eurotako ikasketa poltsa izango da saria, prestakuntzarekin zerikusia duen edozertan erabiltzeko balioko diona.

Lurrak azpian hartuta

Aste Santu inguruan egindako euriteek eraginda, luizia izan zen Zaharren Egoitzarako bidean, eta muga behera jausitako lur eta harriek auto bat txikituta laga zuten.





SAN ANDRES

ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Bularreko minbiziaren inguruko hitzaldia

Apirilaren 22an, 18:30ean, EPAko lokalean egingo da hitzaldia eta bertan, bularreko minbiziaren arrazoen azterketaz, tratamenduaz, prebentzioaz eta beste hainbat zehaztapenez berba egingo du Maria Jesus Mitxelenak, Donostiako Institutu Onkologikoko doktorea. Kaxalin, Bularreko eta Ginogologiako Minbiziak eragindako Gipuzkoako Emakumeen elkarte da eta berak antolatu du hitzaldia Udaleko Gizarte Zerbitzuekin lankidetzan.

EHE bazkide bila

Soraluzeko Euskal Herrian Euskaraz taldea bazkide eta taldekide berri bila dabil. "Euskararen defentsa eta euskaldunon eskubiak bermatzeko" helburuarekin, 7 euroko hileroko kuota ordainduko duten bazkideak behar dituzte, urtean zehar egiten dituzten ekintzak finantzatzeko. Harremanetarako: 662191092 telefonoa.

Hildako gudariak gogoratuz

Apirilaren 12an euskal gudariak gogoratuko dituzte Arrano Elkartean. Goizeko 12etan Karakaten elkartuko dira, 16etan Mus txapelketa jokatu da, 19:30etan manifestaldia egingo da eta 20etan bideo emanaldia Gaztetxean.

Euskaraz bizi den herria

"Soraluzen euskaraz bizi gara" dioten kartelak herriko sarrera bietan ipini ditu Udalak. "Herriko datozenei euskaraz egiteko aukera dutela adierazteko" jarri direla kartelak adierazi dute ekimenaren bultzatzaile izan den Pil-pileaneko kiodek.

Asfaltoa eta argiztapena izan dira herritarren kezka nagusiak

Ezozki Bidea, Gabolatx, Arraikua eta Loralde kaletako bizilagunek beraien kekek azaldu dizkiote Udal Gobernu Taldeari. Hiru bileretan aipatu dena asfaltoaren eta espaloaren egoera txarra izan da, baita zenbait gunetan dagoen argiztapen falta eta txakurrekin dauden arazoak ere. Aparkaleku

gehiagoren eskaera ere orokorra izan da.

Ezozki Bidean zakarrontziak eta zaborra birziklatzeko edukiontzia eskatu dituzte eta musika taldeek eragindako zarategatik keka adierazi dute. Loralde eta Arraikuako bizilagunek jakitzera eman dute kotxeak azkarregi ibiltzen direla. ☺

Hurrengo bilerak

Apirilak 23: Kalebarren-Santa Ana-Olea

Apirilak 25: Estazioa-Kalonge-Zeleta

Maiatzak 6: Baltegieta-Rabal

Maiatzak 8: Etxaburueta-Elizburu

Ekainak 3: Serafin Atxotegi-Gipuzkoako Etorbidea

Ekainak 5: Atxuri-Errekalde

Arraikua eta Loraldeko bizilagunak azken bileran.



Kontulan Aholkularitza S.L.


Enpresa aholkularitza
Jabe Elkartek
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Telefonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Juan Mari
arraindegia
Eguneroko
arraina
eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
T. 943 75 24 40



JUAN MANUEL BERRUETA, argazkilaria

“Izaera publikoa eman behar zaie argazki zaharrei”

Argazkilaria, ofzios eta afzios. Hirugarren begia etxean utzi eta argazki on bat galtzeko beldurrez, gainean erabiltzen du beti kamera. Argazki berriak egiteaz gain, Soraluzeko ia 2.000 argazki zahar interneten ipini ditu ikusgai.

Ezinbestekoa da argazkien udal artxiboa izatea

Zaharrena 1890 urte ingurukoa da

Zerk bultzatuta ekin zenion argazki zaharrek batzeari?

Beti gustatu izan zaizkit argazki zaharrak, gauzak zela pasatzen ari diren agertzen dute-lako. Historia dago hor; bota egin diren eraiki-nak, gure artean ez dagoen jendea... Duela 25 urte hasi nintzen batzen. Soraluzen argazki denda neukanean, jendeak ekarri egiten zizkidan.

Nondik lortu izan dituzu?

Jendeak ematen dizkit. Badaude hutsik egiten ez didatenak, argazki zaharren bat lortu orduko deika ditudanak. Batzuetan gertatzen da etxe batera joan eta paretean zintzilik ikustea, eta argazkiak ateratzen ditut.

Zenbat argazki daukazu gaur egun?

Zazpi milatik gora denetara agian, baina asko negatiboan daukat. 4.500 argazki inguru digitalizatuta ditut. Webgunean ipintzeko baina, eskaneatu eta bestelakoak egin beharrak lan handia suposatzen du.

Ze urte bitartekoak dira?

XX.mendekoak dira gehienak. 1900 ingurutik hasi eta 1980ra bitarte. 80.hamarkadakoak berez ez dira hain zaharrak, baina herria hainbeste aldatu denez urte gutxian, hauek ere ia zaharrak dira.

Zein da argazkirik zaharrena?

Badago sorta bat iñauterietakoa, Plaza Barrixan. Hamaika-hamabi lagun azaltzen dira gitarrekin eta mozorrotuta. Ramiro Larrañaga zenak esan zidan 1890 urte ingurukoa izango zela, baina zehaztapenik ez dago jakiterik. Norena den ere ez dakit. Bazen Kajoitxu izeneko argazkilaria bat, eta Eibartik ere etortzen ziren sasoi hartan...

Argazki zaharragorik egongo dela uste duzu?

Bai, baietz pentsatzen dut. Baina jendea oso jelskorra da horrelako argazkiak uzteko. Izaera publikoa eman behar zaie argazki horiei.

Ze arlotako argazkiak dira?

Herriarekin lotutako arlo guztiak. Paisaiak, eraikinak, pertsonaiak, gertaerak, ospakizunak... Herrian garrantzitsuak izan diren gertaeren ar-

FRANCO KAÑOI FABRIKAN
Diktadorea Soraluzen izan zeneko 30 argazki daude bilduman.



tean badaukat bilduma bat, Albesakoa. Langileak fabrika, erabiltzen zuten sistema hidraulikoa, langileak Eibarrera sindikatuaren aurrean protesta egitera joan zirenekoa, industrialdean piztutako suak... Nire osaba Josek (J. Berruetak) ere kiroletako argazki asko laga zizkidan.

Bada denen artean bereziren bat?

Erregetxea zegoenekoek atentzioa eman izan ditate, hunkitu egiten naute. Erregetxea, Plaza Zaharra, hiltegia, submarinoa, landatu berri zeuden zuhaitzak... orain nola dauden ikusita, zirrara eragiten du argazki horiek ikusteak. Kañoi fabrikako ekonomatoko argazkiak ere oso politak dira. Denak dira bereziak.

Erakutsi ezin denik badago?

Gerra denborako argazki oso politak dauzkat, baina horiek ezin dira argitaratu. Oso argazki konprometituak dira, agertzen den jendeagatik. Desfileak azaltzen dira Errabal kalean; txapel gorriak jantzita eta bandera nazionalarekin doan jendea. Nik badauzkat batzuk eta badakit gehiago badaudela baina zaila da horiek lortzea.

Herrian ez dago argazki zaharren artxiborik. Beharrezkoa da?

Bai, Udalaren ekimena izan beharko litzateke, herriko historia delako. Ezinbestekoa da. Duen garrantzia azaltze aldera, adibide bat. Nire osaba Jose Tolosako edo Kutxako artxiboan izan zen eta Francori ateratako 30-38 argazkiko bilduma bat lortu zuen, non Franco Soraluze izan zela agertzen zen. Jende askok ez zekien hori.

Udalak egin dizu inoiz argazki bilduma horiek eskuratzeko proposamenik?

Ez. Behin Ramiro Larrañagarekin topo egin nuen bidai batean eta harek ere kexa zeukan Soraluze artxiboan argazkirik ez zelako batzen. Argazki asko pasatu zizkidan.



Nolatan erabaki duzu argazkiak interneten ipintzea?

Web-orri batean nahi adina argazki zintzilikatu nitzakeela jakin nuenean ekin nion. Argazki zaharrez gain, beste argazki asko ipintzeko aukera ere eman dit, tartean herriko jai eta ospakizun batzuk.

Argazki bakoitzaren istorioa osatzen lagundu dizu?

Bai. Jendeak komentarioak egiteko aukera duenez, argazkikoen izenak edo aipamenak idazten ditu. Artxiboari datu pila izugarria ematen dio horrek eta aberastu egiten du.

Ezagutzen du jendeak zure lana?

Asteburutan kalean geratzen naute, argazkiak ikusi dituztela esanez eta pozik. Bizitasuna ematen du horrek. Gainera mundu osoko jendeak ikusteko aukera du. Japon, Hawaii, Australia... denerariko herrialdeetatik ikusi dituzte Soraluze argazkiak. 📍

MENDI PUNETAN

Soraluze zein Euskal Herri osoko mendietan ateratako argazkiak daude.

Gerrako argazkiak ezin dira argitaratu, agertzen den jendeagatik

FUTBOLARIAK

Euskalduna: Txiki, Peñalba, Lombide, Garcia, Arruabarrena, Lamariano, Arizaga, Garaikoetxea eta Oruesagati

ARGAZKIAK IKUSTEKO:

www.juanmanuelberrueta.com
 ("albisteak eta loturak" atalean klikatuta)



ZER TRISTEN DOTSAZU?

Puntutako karnetarekin kontu gehixagokin gidatzen dogu?

Hilabete gutxiren buruan hiru istripu gertatu dira Soraluzen, ia leku berean guztiak, hildakoak eta zaurituak eragin dituztenak.

MARIA ISABEL MARIN
Dendaria



Trafikoko Zuzendaritza Orokorrak diñuan ez gutxitsu dira istripuak baina benetan ez dakit hori izan dan arrazoia. Prebentziorako balixoko dau baina dirua kentzeko beste modu bat da.

ANGELA VICIOSA
Administraria



Bai, jentiak bildurra dotsalako puntuak galtziari. Entzun dotenez, puntuak berreskuratzeko eskoletan adin ertaineko gizonetzkuak dira gehixenak, eta ez kulpia botatzen dotsegun gaztiak.

JOSE FRANCISCO OREGI
Tornerua




Hobeto gidatzen da baina karnetik bare geratzen dan jentiak karnetik bare gidatzeko arriskua haundixagua dabaitta. Nere inguruan ez dakat puntuak kendu dotsezen inor.

RAMON AGIRRE
Delineantea



Nik behintzat betiko modua gidatzen jarraitzen dot eta ez doste punturik kendu. Inguruan be ez dot uste gidatzeko moduan aldatu egin danik. Berdin jarraitzen dau.

KOMIKIXA



EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Karta enkarguz, jaunartzeak eta bataioak

Santa Ana kalea
20870 SORALUZE
T. 943 75 13 83

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

Soraluzetarrak IV. Debagoieneko Trikiti Egunean

Debagoieneko trikitilariak Oñatin batuko dira apirilaren 26an, Trikiti Egunaren laugarren edizioan, eta Soraluzeko Musika Eskolako 16 lagun ere bertan izango dira. Goizeko 10etan hasi eta gauerdia bitartean, kalejira eta emanaldia eskeintzeaz gain, bazkaria eta erromeriez gozatzeko aukera izango dute, Trikitizio eta Imuntzo eta Beloki taldeekin.

Jaiak prestatzeko bilerarako deialdia

Herriko jaiak antolatzen hasteko asmoz (Santiago-Santa Anak eta Andramarixak), Udaleko Kultura Batzordeak bilera bat antolatu du Udaletxeko Saio Aretoan apirilaren 15erako, martitzena, arratsaldeko 7etan. Soraluzeko elkarte, koadrila eta herritarrei dei egiten die bertaratu eta proposamenak elkarbanatzeko.

Apirileko Gaztetxeko egitaraua

Barixakua 18, 22:00etan

kontzertuak Hurto, Golpe de Estado eta Aфонia
Eguena 24, 19etan Bideoa: Hustu arte

Barixakua 25, 22:30etan
Antzerkia Kili-kolo taldearen
eskutik: Patetikakabareta

“Kaputen Kanta” antzezlan musikala datorren barixakuan

Euskara Elkartearen Topaguneak antolatzen duen Kultur Errotaren barruan, “Kaputen Kanta” antzeztuko du Antzerkiola Imaginarioak apirilaren 18an, kiroldegiko atarian, gaueko 22:30ean. Verónica Fernándezek zuzendutako musikala da, Aitor Agirianoren musika originalarekin eta Jon Gerediaga eta Na Gomesen testuekin, publiko guztiei zuzendua.

Hileta alaia

Antzezlan honetan, IVY (Mirian K. Martxante) eta DORA

(Maria Urzelai), bibolina eta tronpeta, itxura iluneko espaziora helitzen dira euren bihotz dantzariekin. Negar-kantariaren lanak egiten dituzte hileta ospakizun berezi batean, eta heriotzaren aurrean atsekabetu beharrean, zulo eta amaiera guztiak ospatzen dituzte. ☺



Larrain Dantza ikastaroa martxan da

Ekainaren 7an ospatuko den Erromeria egunean dantzatzeko, Larrain Dantza ikastaroa antolatu dute Urrats Dantza Taldeak eta Euskal Jai Batzordeak. Dantzarako gogoia duen edozeini zuzendua dago ikastaroa.

Lehenengo saioa hilaren 4ean egin zuten eta hogeita hamar lagun inguru batu ziren. Apirilaren 11 eta 18an egingo dira hurrengo saio biak, iluntzeko 7etan goiko eskolan, eta maiatzean zehar jarraituko dute.

Apirilaren 26an, Dantzari Eguna

Urrats Dantza Taldeko 22 dantzari Antzuolan emanaldia eskai-

niko dute apirilaren 26an, Debagoieneko Dantzari Egunean, Arrasate, Oñati eta Antzuolako dantzariekin batera. Soraluzeko Soka Dantza edo Aureskua eta Atzekua ikasten dihardute mutil gazteek, bertan lehenengo dantza egiteko asmotan. ☺



ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnua 943 75 12 49
Soraluze

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

KM
Desing

Disseinua eta Sormena

Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Hiru Txirlo bolo txapelketa, bihar, San Andresen

Zapatuan jokatu da San Andres auzoko bolatokiari Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketako 3.jaurtialdia, arratsaldeko 5etan. Soraluzetarrak txapelketan parte hartzen dihardute; taldeka San Andres A eta San Andres B daude, 5. eta

7. lekuan sailkatuta; binaka, 8. lekuan daude Ximun Larrañaga eta Bittor Nuñez, eta bakarkako sailkapenean aurrengo postuetan doazenak Iker Salaberria eta Bittor Nuñez dira, 7. eta 8. postuetan. 🍀

EMAITZAK

PILOTA

Eskuz Binakako Finala
 Olaizola II – Mendizabal II 22
 Titin III – Laskurain 17

Debarroa Txapelketa
 Azkorbebeitia – Arrieta 7
 Eskoriatzako bikotea 22

FUTBOLA

Sora 0 – Antzuola 2 (Erreg.)
 Ikasberri 0 – Sora 1 (Jub.)
 Sora 5 – Ilintxa 3 (Kad.)
 Roteta 3 – Sora 0 (Erreg.)
 Sora 0 – Amaiak Bat 2 (Jub.)

AGENDA

PILOTA

Barixakua 11, 21:00etan
 Kiroldegixan
 Debarroa Txapelketa
 Calles – Arrieta
 Elgoibarko bikotea

FUTBOLA

Domeka 13, 12:00etan Orion
 Orioko – Sora (Erreg.)
 Domeka 13, 16:00etan Zestoan
 Zestoa – Sora (Jub.)
 Zapateria 12, 11:30etan Ezozin
 Sora – Zestoa (Kad.)

Laskurain, Binakakoan Txapeldunorde

Titin IIIarekin batera txapeldunorde geratu da Laskurain, Ogetako finalean 22 eta 17 galdu ostean Olaizola II eta Mendizabal IIaren aurka. Eskuetan dituen arazo batzuegatik, ez du banakakoa jokatu.



MABE
 ILEAPAINDEGIA

ESTETIKA
 SOLARIUM

Errabal kalea 1, behea
 Tel.: 943 75 14 89
 20590 SORALUZE

GAZTELUPE
 taberna

tel: 943 75 20 81

Ion Murgizu Pinturak
 MARGOKETA OROKORREAN
 Empapelatuak
 Estukoak
 Fatxadak
 Eskilarak eta patioak
 Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030
 Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
 jotako tornilluak

Errekalde 21
 20590 SORALUZE


T. 943 75 00 06
 T. 943 75 16 00
 F. 943 75 24 61

ZORION AGURRAK



Lore Leturiondo García

Apirilan 11an 3 urte
Zorionak eta muxu handi-
handi bat etxekoan partez.



Valeria Etxaniz

Apirilan 8xan 43 urte
Zorionak guapisima!
Kafe bat pastatxuekin zor-
dozue? Lankideen partez.



Eider Varela

Apirilan 22xan 25 urte
Zorionak politt hori!
Salamanca aldian ospatuko
dogu? Patxo bat lagunen eta
etxekuen partez.



Galder eta Maddalen

Apirilan 13an eta
maiatzan 11an 4 eta 7
urte. Zorionak eta muxu
goxo pila!



Roke Akizu

Martxuan 30ian 42 urte
Zorionak!
Patxo haundi bat etxekuen
partez.



Ezoz eta Anton Akizu

Apirilan 11an 5 urte
Zorionak patxo askokin!
Etxekuen partetik.



Gorka

Apirilan 13an urtebete
Zorionak txiki! Muxu handi
bat etxekuen partez.



Ekain Larrañaga Agirre

Apirilan 21ian 4 urte
Zorionak mutikote!
Ondo pasau zure egunian!
Patxo bat etxekuen partez.



Jone Piñeiro Gantxegi

Apirilan 18xan urtebete
Zorionak txinpartatxo! Jarraitu
halako ona izaten eta familia
guztia alaitzen. Muxu haundi bat
famiariaren partez.



Iker Perez

Martxuan 27xan 5 urte
Zorionak guapo! Segi jator!
Asko maitte zaittugu! Zure
famiariaren partez muxu bat.



Aritz Sudupe

Apirilan 17xan 27 urte
Zorionak!
Patxo bat etxekuen partetik.



Iزارo Moya

Apirilan 15ian 2 urte
zorionak pottola etxeko danon
partez! Segi orain arte bezain
alai.

jaiotakoak



JANIRE MUÑOZ PELLETERO
AMUTZ PEREZ LIZARRALDE

hildakoak



CARLOS AROSTEGI LIZARRITURRI
MARGARITA LARRAÑAGA ARRAZKETA
ROBERTO URBISTONDO LARRAÑAGA

LEHTAKETA

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► Noiz zabaldu eta itxi zeben Sesma frontoia?

- 1- 1900 - 1995
- 2- 1923 - 1985
- 3- 1940 - 1990

► **Saria:** "Euskaraz bai" material sorta.

► **Irabazlea:** Roberto Retolaza

► **Txiribiskatu...**

mozkortziari esaten jako; zihero mozkortu bare, alai eta "txispatuta" egote horri. Herrixan urtetan izan dan txikiteorako ohitturiak hitz zehatzak sortu dittu giro horretan sortzen diran egoerak izendatzeko.



ARGAZKI ZAHARRA




Iturria: M. Garmendia

1952KO SAN LUIS EGUNA

Egun berezixa ospatzeko, esku pilotako txapeldunak ekarri zittuen Plazentziara eta ondorenian, Melxorrenian bazkaldu zeben. Arrasateko Arriaran anaiak ziran txapeldunok. Sasoi hartan, Mauri Garmendia zan lehendakarixa.

Jarritta, ezkerretik hasitta: txistulari bat, Celestino Txatua (+), Juan Carlos Etxaniz (+), Lus Mari Maiztegi (+), Mauri Garmendia, Arriaran pilotaria, Don Jose Antonio Loinaz (Kongregaziñoko zuzendarixa, abadia), Arriaran pilotaria (beste anaia), Jesus Mari Larrañaga (+) eta beste txistulari bat.

Tente darenak: txistularixa eta Pepe Cortijo (+) argazkilarixa. 



ROBERTO URBISTONDO LARRAÑAGA

2008KO MARTXOAREN 28AN HIL ZEN
47 URTE ZITUELA

Momentu eder asko elkarbanatu genituen, garaipen eta porrotekin poztu eta tristetuz. Gure oroimenean eta bihotzetan gordeko zaitugu.

Soraluzeko Txuri-Urdin Elkarte